

Voces en transición” Emma Goude 1:06:46

Herriak Trantsizioan mugimenduari buruzko bigarren edizioa. Bere izenak adierazten duen bezala, petroliorik gabeko mundurako trantsizioa egitea proposatzen du mugimendu horrek. Izan ere, petrolioa, kalte ugariren erantzulea izateaz aparte, agortzen ari da, eta haren mendekoa da gure sistema. Petroliorik gabe bizitzeko prestatu behar dugu. Film hau, mundu osoko istorioetan oinarritua, inspirazio-iturria da, zinez: jende arrunta, aparteko gauzak egiten ari dena. Komunitateak ekinean, monetak inprimatzea, elikagaiak landatzea, ekonomia lokalizatuak, irrati komunitarioak sortzea, energia kolektiboak... Kaosa eta zalantza nagusi diren garai hauetan, proposamen hau lau haizetara zabaldu da, baikortasuna kutsatuz.